

# Inoizko setiorik luzeena

JAN PEETERS



Otomanoak gotorleku bat erasotzen Candiako setio luzean. Bi hamarkada luze beharko zituzten behin-betiko garaipena lortzeko.

CANDIA (EGUNGO HERAKLION), 1648. Urte horretan Kretako hiriburuko harresien barruan bizi zirenak 21 urtez itxaron behar izan zuten hiritik irten ahal izateko.

1570ean Otomandar Inperioak Veneziako Errepublikaren menpe zegoen Zipreko uhartera inbaditu zuen —kondairak dioenez, modu horretan Selim II.a sultanak Comandaria ardo kuttunaren hornidura bermatuko zuen—. Espainiako Koroak, Veneziako eta Genoako Errepublikek, Estatu Pontifikalek eta Malta-ko Ordenak Liga Santua sortu arren, eta Lepantoko guduan (1571) otomanoak mendean hartu zituzten arren, Zipre turkiarren eskuetan izango zen beste hiru mendez. Eta garai bateko Veneziako Errepublika aberatsak pixkanaka Meditarraneoko lurraldeak galdu zituen, Kreta besterik geratu ez zitzaion arte.

1645ean, Maltako zaldunek konboi otomano bati eraso zioten eta Candian hartu zuten babes, harripakinak eta Ibrahim I.a sultanaren harena haiekin eramanez. Irainari erantzunez, 60.000 turkiarrek Kretan lur hartu zuten eta hiru urtetan ia uharte osoa konkistatu zuten. Candia hiriburua besterik falta ez zitzaenez, setiatu egin zuten.

Hiria 6.000 soldaduk babesten zuten, eta hornidura ez zen nahikoa setioari luzaroan eusteko. Turkiarrek ur hornidura eten zuten eta hiria hainbat hilabetez bonbardatu. Hala ere, Candia ez zen behera etorri eta lehorreko borroka ez atzera ez aurrera geratu zen. Veneziarrek eta aliatuek lehengaiak itsasoz sartzea lortu zuten, kostaldeko gotorlekuaren iparraldean zabalduak zirrikitutik. Hala, gatazka lehorretik itsasora aldatu zen, batzuk zein besteak hornitzeko itsasbideen kontrola helburu. Gudu horietan, zenbaitetan otomanoak ziren garaile, besteetan veneziarrak eta aliatuak, baina behin betiko garaipenik ez zuten lortzen. Setioa barrutik hausteko bi saiakera ere egin zituzten, baina alferrikakoak izan ziren, turkiarren ahaleginak bezalaxe.

1669an, 21 urte geroago, beraz, Francesco Morosini kapitain jeneralak 3.600 soldadu besterik ez zituen, eta ia ez zitzaien elikagairik eta muniziorik gelditzen. Irailaren 27an errenditu ziren, eta turkiarrek ahal zuten guztia hartzeko eta bizirik alde egiteko baimena eman zieten, 21 urteko hurbiltasunak limurtuta edo. ■



## Arrastoak

### 10.000 urteko etxea aurkitu dute Israelen

JERUSALEMETIK 30 kilometrora, errepide bat zabaltzeko lanetan ari zirela, 10.000 urteko egitura bat aurkitu dute. Israelgo Antzinako Agentziaren arabera, inguruko eraikin arrastorik zaharrena da, eta hori ez da gutxi, Jordan ibaiaren eta Mediterraneo itsasoaren arteko eremua historikoki oso aberatsa baita, eta zaila baita arkeologoen halako ezustekoa topatzea. Neolitoko eraikinaren arrastoen artean hainbat lanabes eta gurtza objektu aurkitu dituzte, baita 1,30 metro luze den menhirra ere.

Bere horretan aurkikuntza nabarmena izanda ere, inguruko Brontze Aroko arrastoek are garrantzitsuago bihurtzen dute. Amir Golani indusketako zuzendarietako baten hitzetan, “gizarteak kokaleku honetan izan zuen bilakaeraren erretratu zabal eskaintzen digu aztarnategiak. Duela 5.000 urte nekazal gizarte hiritartzen hasi zen eta trantsizio hori garbi ikus dezakegu hemen: kokalekua gradualki planifikatu zuten, kaleak eta eraikinak gehituz joan ziren...”. ■



RON BE'ERI